

Eusko Legebiltzarreko IX. legealdia dator, eta gero zer?

Gernikako Estatutuak 30 urte beteko ditu aurtengo urrian. Martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira. Datorrena IX. legealdia izanen da EAEn. Análisi kronologiko honek hiru hamarkadako Euskal Herria politikoaren begirada orokorra bildu du.

MIKEL ASURMENDI

EUSKAL HERRIA, Euskadi (EAE), Espainia eta Frantzia: bi estatu eta estaturik gabeko herri bat. Herri honetan bi legebiltzar (Eusko Legebiltzarra eta Nafarroako Gobernu), bi gobernu (EAEkoa eta Nafarroakoa) eta kontseilu bat daude (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia). Bi nazio-estatu eta nazio bat

eraiki nahia. Euskal Herriatik –kultur komunitate izaera– Euskadira –komunitate politiko izaera– bidean, EAE da euskal nazionalisten eraiki gun e aitzindaria. –Aurrera egin aitzin, Ipar Euskal Herriaz aipua: Frantziako Gobernu sozialistak 1980 aldean herria egituratzeko eta ezagutzeko iragarri zuen Euskal Departamendua ez da egundo gauzatu–.


Konstituzionalistak versus subiranozaleak

Frankismoaren ostean bi legebiltzar osatu ziren Hego Euskal Herrian. Abertzaleen nahien aurka, Hegoaldeko euskal komunitatea bitan banatu zen: Nafarroan eta EAEn. Espainiako Konstituzioaren IV. Xedapen Iragankorrek bi komunitateak –berauek nahi izanez gero– batzeko aukera ematen du alabaina. Espainia nazioaren zaleen gehiengoak –Espainiako eskuinak ezetza eman zion Gernikako Estatutuari AP alderdiaren eskutik– baietza eman zion sistema –demokratiko– berriari, baita EAJk lideratzen zuen abertzaletasun posibilistak. Ezker abertzaleak (HB) ezezkoa eman zion erreformaren bideari. Espainiako Konstituzioak ez zuen jaso Hegoaldean gehiengoaren babes a, Gernikako Estatutua onartua izan zen ordea. Nafarroako Foru Hobekuntza legea berriz ez da egundo bozkatur a izan. 1980 aldean osatu ziren Hegoaldeko lehenengo bi legebiltzar eta gobernuak.

Frankismoaren osteko Estatuaren –aldian aldiko gobernuez gain, ejertzitoak, poliziak eta Auzitegi Nazionalak osatuta, besteak beste– eta ETA erakunde armatuaren arteko enfrontamendua aurrez aurrekoa eta oso gogorra izan zen. Aro demokratikoaren lehen hamarkadan ezker abertzaleak ez zuen sistema demokrati-

ETAK urte bat eta erdiko su-etena bete zuen. Gatazkaren irtenbidea oraindik ere urrun zegoela baieztatu zen, ordea. Lizarra-Garaziko garaia beste ziklo luze baten ataria baino ez zen izan; indar abertzaleen arteko –EAJ eta ETA bi muturretan– moldatu ezina islatu zen.





Hiru negoziazio aukera izan dira eta hiruek porrot egin dute. Haatik, soluziobideen lanketak eta aldian aldiko negoziazioek autodeterminazioaren egikaritze moduko bat landu dute: erabakitzeo eskubidea.

koaren bide politikoa urratu. HBk 1990era –IV. legealdira– arte ez zuen EAEko politikagintzan parte hartu. Nafarroako Parlamentuan parte hartzen hasi zen, baina, erabateko “haustura” xede zutenen tesiak nagusitu ziren eta instituzioetatik at aritu zen. Sektore hauetakoen ustez, Euskal Herrian demokrazia ezartzeko KAS Alternatibako bost puntuak ezagutu behar ziren. Autodeterminazioa eta Hegoaldeko lau lurralde historikoak instituzio bakarrean gauzatzea funtsezko xedeak izaki.

1980ko hamarkada

1980tik 1990era ezkerreko mugimendua eta herri mobilizazioak oso sendoak izan ziren. Lemoizko zentral nuklearraren eraikuntza geldiarazi zuten. Herri ekimenak eta ETaren esku-sartzeak behartu zuten Estatu zentrala ixtera. Herri mugimenduaren garaipe mugarririk izan zen. Artean, indar parapolizialak (GAL) gogor jo zuten ETaren eta ezker abertzalearen aurka orobat. 1982an, estatu kolpe ahaleginaren ondoren, Espainiako Gobernuak LOAPA gauzatu zuen eta Gernikako Estatutuaren mugak zedarritu zituen. EAJ zatitu zen –EA alderdia sortuz– eta horrek abertzale posibilitestengan ahulezia eragin zuen. EAJk PSE-EErekin gobernatu “behar izan” zuen EAEn. 1988an, Eusko Legebiltzarreko alderdiek Ajuria Eneko Ituna

sinatu zuten “euskal gatazka”ri irtenbide elkarrizketatua emateko xedez. 1989an, berriz, Espainiako Gobernuaren (PSOE) eta ETaren arteko Aljeriako elkarrizketak burutu ziren. Elkarrizketek gatazkaren irtenbidea urrun zegoela baieztatu zuten. Alabaina, soluzioa negoziazio politikoaren bidetik etorriko zela baieztatu zen nolabait.

Leitzarango Autobiaren (A-15) aferak markatu zuen hamarkada honen amaiera. Lurraldea Koordinadoraren inguruan bildu zen herri mugimenduak nolabaiteko garaipena –bidearen trazatua aldatu zen– lortu zuen. ETak aferan eskua sartu zuen halaber. Halere, borroka armatuarekiko kontrobertsiak areagotu ziren herri mugimenduetan.

1990ko hamarkada

Espainiako gobernu sozialistaren gainbehera hasi zen hamarkada honen hasieran. GALen afera, ustelkeria kasuak eta aurreko hamarkadan ezkerreko mugimenduarengandik aldentzeak –NATOrekiko bere jarra- tarteak; Euskal Herrian bereziki–PSOE ahularazi zuten. Hondamen-

**ETaren “borroka armatua”
tarteak, Estatuaren
erreprezioak ez du jada
gizartearen mobilizazioa
eragiten**

dia areago zabaldu zen A-15 autobia- ren inguruko iruzur kasuen ondorioz. Nafarroako presidente Gabriel Urralburu auzipetu zuten.

Ezker abertzaleak bira egin zion bere ibilbide politikoari. Eusko Legebiltzarrean parte hartzen hasi zen. HB aukera politikoa ETaren Alternatiba Demokratikoaren ildoan mugitzen hasi zen. Halaber, Espainiako alderdi sozialistaren eta Eusko Legebiltzarreko alderdi abertzaleen arteko harremanak okertu ziren. Autonomiaren erabateko geldialdia izan zen. EA Euskal Herriaren subiranotasunaren alderako bidea urratzen hasi zen. Ajuria Eneko Itunak marko autonomikora behartzen zituela ohartu ziren alderdi abertzaleak, EAJko sektore subiranozalea barne. Beranduago, ELAk autonomiaren aroa agortutzat joko zuen.

Anartean, 1996an Espainiako Gobernura iritsiko zen Partidu Popularraren (PP) –Jose Maria Aznar sektore eskuindarren buru izaki– aukera sendotzen joan zen. Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko gatazkak bestelako jite bat hartu zuen. Harrezkero, PPko Gobernuak ez zituen bereizten demokraziaren aukera eta sistemarekiko “haustura” jorratu zuen ezker abertzalearen bidea. Aznarren Gobernuak Estatuaren botere legegileak bere estatu- nazioaren xedearen nahiera antolatuta zituen. Gobernuaren estrategia gogortu zen. PPko Gobernuak Egi-



men itxiera lehenik eta *Egunkariarena* beranduago gauzatu zituen. Geroago, 18/98ko auzia egikaritutako zen.

Bestaldean, ETAREN Alternatiba Demokratikoaren arabera, Nafarroa eta EAE batzeaz batera, Iparraldeak euskal nazioaren lurraldea osatu beharra zuen *de facto*. Gatazkak hartutako norabidean, bideak nahiz indar eragileak nahastu ziren, hots, bide militarra eta bide politikoa. ETAREN “sufirimenduaren sozializazioa” estrategia deitu izan zaiona garatzen hasi zen. Estatuak botereen aurka jo ez ezik, PSOEko eta PPko hautetsiak —eta kazetariak, besteak beste— jomugan hartu zituen.

Konstituzionalisten eta subiranozaleen arteko soka tenkatu zen. Indar abertzaleek Lizarra-Garaziko Akordioa zertu zuten. Akordio mugarri honek ilusioa piztu zuen abertzaletasunean. ETAK urte bat eta erdiko su-etenaren bete zuten. Gatazkaren irtenbidea oraindik ere urrun zegoela baieztatu zen, ordea. Lizarra-Garaziko garaia beste ziklo luze baten ataria baino ez zela izan; indar abertzaleen arteko —EAJ eta ETA bi muturretan— moldatu ezina islatu zen. Gizarteak irrikitzen zuen soluzioa ez zen lortu. Herri mugimenduak landu zuen bide zibilaren aukera zapuztu zen.

2000ko hamarkada

PPren nagusitasuna bermatuta zegoen, baita Aznarren ordezkoa Raxoi izango zela uste osoa eduki ere. 2004an, talde islamiarrek Madrilen egindako atentatuek, besteak beste,

Zapatero eraman zuten Espainiako Gobernu buru izatera. Horrek Estatuaren eta euskal indar subiranisten arteko gatazkaren parametroak birkokatu zituen. 2002tik aurrera —PSOE Madrilgo Gobernuaren oposizioan zela— Batasunaren eta alderdi sozialistaren arteko harremanek Anoetako Proposamena eta Loiolako elkarrizketak gauzatea bizkortu zituzten. Ibarretxe Plana gauzatu zen Eusko Legebiltzarrean eta Madrilen zapuztu. Hirukoak osatu Jaurlaritzak Herri Galdeketa gauzatu nahi izan zuen, baita Estatuak zapuztu ere.

Anoetako Proposamenak bi karrilen estrategia eskaini zuen: batek Espainiako Gobernuaren eta ETAREN arteko betebeharrak bideratuko zituen. Beste bidea indar politikoen urratu behar zuten. Loiolan hiru alderdi eseri ziren: PSE, EAJ eta Batasuna. Oztupoak asko ziren. Batetik, PPk sortutako Alderdien Legea eta Estatuaren botereen —polizialen eta legegileen— esku-sartzea. Bestetik, Lizarra-Garaziko Akordioa osatu zuten sektore subiranozale batzuek ez zuten bat egin Loiolako elkarrizketen moldearekin. ETAREN hirugarren su-etenaren ez zen ere behin betiko izan.

Euskal abertzaletasun posibilista ataka batean dago. 30 urtez EAE governatu ostean, lidergo gal lezake

Hiru hamarkada eta gero zer?

Estatuaren 30 urteko sistema politikoak ez du normalizazioa ezarri Euskal Herrian. Hiru negoziazio aukera izan dira eta hiruek porrot egin dute. Haatik, soluziobideen bilatze lanketak eta aldiari auzidiko negoziazioek autodeterminazioaren egikaritze moduko bat landu dute: erabakitze eskubidea.

Bigarren zikloan (90ko hamarkadan) ezker abertzalea politikagin-

tzara hurbildu zen. Hirugarren zikloan (2000koan) Estatuak politikagintzatik at ezarri du. Honen arrazoiak: ETAREN bortizkeriarekiko konplizitateak. Ezker abertzaleak bide politikoa urratu nahi du, baina harrapatuta dago. Zeinek harrapatuta? Duela 30, 20 edota 10 urte gizarteak Estatuak ezker abertzalearen —independentziaren— aukera galarazten zuela pentsa zezakeen, baina gaur egun, abertzaleen gehiengoak ETAREN jarduerak ekimen subiranozalearen bidea oztopatzen duela uste du, baita, baliteke, ezker abertzalearen gehiengoak ere.

Gizartea zatituta dago. Normalizazioa irrikitzen du. Ezin du alderdien arteko liskar gehiago jasan, alta, ez du beraiengan eragiteko ahalmenik. Gatazkak apatia eragin dio. Esaterako, “bakea” hala nola ETAREN “borroka armatua” espresioak eufemismoak bilakatu dira. Estatuak politikagintzan, euskal nazioaren eraikuntzaren PPren “ukazioa” da eufemismo ez den bakarra. Patxi Lopezek *País* hitza erabiltzen duenean ez du zein nazioz ari den argitzen. Ibarretxe herri honen *gehiengoa* aipatzean EAERA mugatzen da. Ote-gik berriz, *Herri* honen gehiengoa abertzalea dela dio. Euskal Herriaz ari bada, badaiteke erratuta egotea. ETAREN “borroka armatua” eufemismoa eta iruzurra da. Ikuspuntu moral batetik eufemismoa, eta iruzurra da “borroka armatu” horrek ez duelako, adibiderako, AHT proiektua geldiaraziko. ETAK “borroka armatu” hori —Estatuaren aurkako bere gatazkan— garaipenik ekarriko ez duela dakien arren erabiltzen duelako. ETAREN “borroka armatua” tarteko, Estatuaren errepresioak eta torturak ez du iraganeko gizartearen mobilizazio masiborik eragiten. Herri honek erabakitze duen eskubidea lehen-tasun izatetik bigarren planora pasatzen hasi da. Estatuak ezin du ETA garaitu, baina ezker abertzalearen estrategiak ez du lehen hamarkadan zuen sostengua. Euskal abertzaletasun posibilista berriz, ataka batean dago. 30 urtez EAE governatu ostean, lidergo gal lezake. Martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango dira. IX. legealdia dator eta gero zer? ■